Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko irailaren 22a, asteazkena — 182 — Miércoles, a 22 de septiembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZKOITIKO UDALA

*Azkoitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdia 2021. urterako. BDNS (Identif.): 583829.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/583829).

*Azkoitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdia 2021. urterako.*

2021eko irailaren 10eko Alkatetza Dekretu bidez Azkoitiko herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateko 2021 urterako deialdia egitea onartu da. Deialdiak honela dio:

*1. artikulua. Xedea eta epe lagungarria.*

Laguntza hauen xedea, Azkoitiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten edo –eskaerak aurkezteko epearen barruan eta eskaerarekin batera–2021eko azaroaren 29a aurretik errentamendu-kontratua sinatzeko konpromisoa hartuko duten kolektibo desberdinei: 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, mugikortasun urria edo/eta ezgaitasun absolutua duten pertsonak, bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak, 65 urtetik gorako pertsonei eta alargunei, alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea da.

Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu-kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentea dela ulertuko da, eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta.

Izatezko bikoteak edo ezkontzak bizikidetza-unitatetzat hartzen dira.

Diru-laguntza hori oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoetan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak gutxienez 12 hilabetetan izandako alokairu-gastua kontutan hartuta eta betiere, baldintza horiek denbora-tarte horretan mantentzen badira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta badeude ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko zenbateko finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo kontribuzio edo zergagatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horien hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

*2. artikulua. Baztertzeak.*

Ez dira diru-laguntzaren onuradun izango honako egoera hauetan aurkitzen diren eskaerak:

## AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Convocatoria para 2021 de las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Azkoitia. BDNS (Identif.): 583829.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/583829).

*Convocatoria para 2021 de las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Azkoitia.*

Por Decreto de Alcaldía de fecha 10 de septiembre de 2021 se ha aprobado realizar la convocatoria para el año 2021 de las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Azkoitia. La convocatoria es la siguiente:

*Artículo 1. Objeto y periodo subvencionable.*

El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir –parcialmente- al pago de alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de distintos colectivos de la población: jóvenes de entre 18 y 35 años, personas con discapacidad de movilidad reducida y/o invalidez absoluta, separados o divorciados, personas mayores de 65 años y viudos/as que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler o se comprometan –dentro del período de presentación de solicitudes y junto con la solicitud al efecto– a suscribir el correspondiente contrato de arrendamiento antes del 29 de noviembre de 2021.

Podrán ser beneficiarias aquellas personas que compartan una vivienda siempre que el contrato de arrendamiento se suscriba con todas y cada una de ellas. En tal supuesto será considerada cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, y la renta será computada de forma prorrateada entre cada una de las suscribientes del contrato.

Parejas de hecho o matrimonios se consideran una unidad convivencial.

La subvención se realizará según las condiciones establecidas en las bases generales y específicas, para el gasto de alquiler asumido por el beneficiario durante un mínimo de 12 meses, y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante dicho periodo de tiempo.

A efectos de lo dispuesto en esta normativa, quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, el correspondiente al garaje, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler un valor fijo de 30 euros por garaje o contribuciones y arbitrios descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

*Artículo 2. Exclusiones.*

No serán beneficiarios de las ayudas las solicitudes donde se cumplan las siguientes circunstancias:

EK\CV GAO-I-2021-06060

a) Ondorengo etxebizitzak:

1. Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

2. Berrakurak.

3. Logelen alokairuak (logela eskubidea).

4. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.

5. Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.

b) Alokairu errentak gehienez 550,00 € (eranskinak barne) izan beharko dute.

c) Ez da onartuko urte bete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

d) Heuren izaera edo helburua kontutan izanik, beste udal departamendu edo erakunde autonomoren baten programei zuzendu beharrekoak. (EPO, Gaztelagun, Etxebizitza eskubide subjektiboa, etabar).

*3. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 45.000 eurotakoa izango da, eta hori 2021. urterako Azkoitiko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

6.000.480.933.00.01 zenbakidun «Gazteentzako Alokairurako dirulaguntzak» partida.

*4. artikulua. Jardueraren hasierako eta amaierako epeak.*

Edonola ere, alokairu kontratuak 2021eko azaroaren 29a baino lehen indarrean egon beharko du, eta gehienez lagundu daitekeen epea hamabi hilabetekoa izango da.

*5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.*

5.1. Dokumentazioa:

Eskabideak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eta udalaren webgunean (www.azkoitia.eus) eskuragarri egongo den eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira.

Oinarri orokorretan adierazitako dokumentazioaz gain, dirulaguntza lerro honetarako eskatzaileak honako agiriak ere aurkeztu beharko ditu:

Orokorrean, kasu guztietarako:

1. Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia aurkeztu beharko da.

Guraso bakarrekoak edo guraso bakarrekoak direla egiaztatzeko, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak arautzen dituen hitzarmena.

3. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, kontratua dagoeneko indarrean badago eta kontuan izanda 12 hilabeteko iraupena izan beharko duela gutxienez; edo, bestela, kontratua hilabeteko epean sinatzeko konpromisoa, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatuta.

4. Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera eman baino gehienez 30 egun lehenagokoa.

Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

— Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.

— Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.

— Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

a) Las siguientes viviendas:

1. Las viviendas de protección oficial de promoción pública.

2. Los subarriendos.

3. Los arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).

4. Los locales usados como vivienda.

5. Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.

b) Las rentas por alquiler serán como máximo de 550,00 € (incluidos anejos).

c) No se admiten contratos de duración inferiores a 1 año.

d) Aquellos que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos. (PCV, Gaztelagun, Derecho subjetivo de vivienda, etc).

*Artículo 3. Partida y dotación presupuestaria.*

La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 45.000 euros correspondiente a la siguiente partida de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Azkoitia para el año 2021:

Partida de «Subvenciones alquiler para jóvenes»: 6.000.480.933.00.01.

*Artículo 4. Plazo de inicio y fin de las actuaciones.*

En todo caso, el contrato de alquiler deberá estar vigente con anterioridad al 29 de noviembre de 2021 y como máximo, el periodo subvencionable abarcará doce meses.

*Artículo 5. Documentación y plazo para la presentación de las solicitudes.*

5.1. Documentación:

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que estará disponible en el Servicio de Atención a la Ciudadanía y en la página web municipal (www.azkoitia.eus).

Además de documentación en los términos previstos en las bases generales, para esta línea de subvención el solicitante deberá aportar la siguiente documentación:

En general, para todos los casos:

1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.

2. En el caso de existir menores de edad, se aportará fotocopia del Libro de Familia.

Para acreditar monomarentalidad o monoparentalidad, convenio regulador de relaciones paternofiliales.

3. Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, vigente, que no podrá tener una duración inferior a 12 meses, o en su caso, compromiso de suscribir dicho contrato en el plazo de un mes tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

4. Certificado de no ser propietario/a de vivienda a nivel estatal, emitido por el registro de la propiedad como máximo 30 días antes de la fecha de entrega de la solicitud de ayudas, de todas las personas solicitantes de la ayuda mayores de 18 años.

Además, en caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación:

— En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición.

— En caso de donación, escritura de donación.

— En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.

EK\CV GAO-I-2021-06060

5. Banku kontu baten titularitatea egiaztatzen duen banku agiria.

6. Banandu edo dibortziatuta dauden pertsonen kasuan:

— Epai irmoaren fotokopia bat, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatiko mantenu pentsioa. Mantenu pentsioaren ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

— Hipoteka kargei dagozkien hileroko ordainketen ziurtagiriak.

7. Desahuzioa denean, desahuzioa erabaki duen epaia.

8. Etxebiden izena emateko eskaera, inskribituta ez daudenentzat eta salbuetsita ez daudenentzat.

9. Diru-laguntza emateko bete-beharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

5.2. Eskatzaileari jakinarazten zaio Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo dituela datu-bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik oinarri hauetan ezarritako ondorengo baldintzak. Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak:

1. Azkoitiko Udala:

— Etxeko erroldako datuen kontsulta.

— Familia barneko indarkeria denean, gizarte-zerbitzuen txostena.

— Genero-indarkeria denean, gizarte-zerbitzuen txostena.

— Hondamendia denean, gizarte-zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena.

2. Poliziaren zuzendaritza nagusia:

— Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena.

3. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak:

— Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren kontsulta.

— Zergapekoak ez diren prestazioen kontsulta.

— Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

— Mugikortasun urriko ezgaitasunaren kontsulta.

4. Eusko Jaurlaritza:

— Etxebide: Euskadiko BOEen eskatzaileen erregistroan inskribatuta egotearen kontsulta (Etxebide).

— Lanbide: Oinarrizko Errenta (OE) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) kontsulta.

— Izatezko bikoteen erregistroa.

5. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala:

— Pentsioak eta bestelako prestazioak.

— Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta.

— Lanbizitzari buruzko kontsulta.

— Ezgaitasun absolutuaren kontsulta.

6. Erregistro Zibila:

— Bizi-agiria eta egoera-agiria.

5.3. Eskariak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

5. Comprobante bancario que justifique la titularidad de la cuenta bancaria.

6. En el caso de solicitantes separados o divorciados:

— Fotocopia de la sentencia en firme donde se estipule la pensión por manutención de hijos. Hay que presentar los justificantes de pago de la pensión por manutención.

— Justificante de pago del importe de las cargas hipotecarias mensuales existentes.

7. En caso de desahucio, sentencia de desahucio.

8. Solicitud de inscripción en Etxebide para los no inscritos, ni exentos.

9. Cualquier otra documentación que pueda tenerse según los requisitos de concesión de la ayuda.

5.2. Se informa al solicitante, que el Ayuntamiento de Azkoitia va a verificar los siguientes requisitos establecidos en estas bases, desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. Los solicitantes tendrán la opción de oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberán presentar la documentación pertinente.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos:

1. Ayuntamiento de Azkoitia:

— Consulta de datos del padrón domiciliario.

— En caso de violencia intrafamiliar informe de los servicios sociales.

— En caso de violencia de género informe de los servicios sociales.

— En caso de catástrofe, informe acreditativo emitido por los Servicios Sociales.

2. Dirección General de la Policía:

— Consulta y verificación de datos de identidad, de cada una de las personas demandantes de la ayuda.

3. Diputación Foral de Gipuzkoa y Haciendas forales:

— Consulta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

— Consulta de prestaciones no contributivas.

— Consulta de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

— Consulta discapacidad de movilidad reducida.

4. Gobierno vasco:

— Etxebide: Consulta de estar inscrito en el registro de demandantes de VPO en Euskadi (Etxebide).

— Lanbide: Consulta de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y Prestación Complementaria de Vivienda (PCV).

— Registro parejas de hecho.

5. Instituto Nacional de la Seguridad Social:

— Pensiones y otras prestaciones.

— Consulta de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones de la Seguridad Social.

— Consulta de vida laboral.

— Consulta de la invalidez absoluta.

6. Registro Civil:

— Fe de Vida y Estado Civil.

5.3. Plazo de presentación de solicitudes:

Las solicitudes podrán presentarse desde el día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Edonola ere, eskariak aurkezteko epea 2021eko urriaren 29an amaituko da.

Diru-sarrerak kalkulatzeko, kontuan hartu beharreko epealdia honakoa izango da: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena aurkezteko epea amaitu ondoren deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurreko zergaldia.

*6. artikulua. Egiaztatze agiriak eta aurkezteko epea.*

Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik bi hilabete igaro aurretik ebatziko dira diru-laguntzak eta bertan lehen ordainketa aginduko da.

Hurrengo ordainketei dagokienez, zatika egingo dira, hiru hilabetetik behin, hiruhilekoa amaitzean, eta justifikatu egin beharko da hil horietan alokairua ordaindu izana. Azkoitiko Udalaren bulegoetan entregatu beharko dira alokairua ordaindu izanaren agiriak, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehen 15 egunen barruan.

Alokairu partekatua denean, bizikidetza-unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean. Etxebizitza monumentu-multzoaren barruan badago, 50 €ak ere zatituko dira.

*7. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.*

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta banan-banan jakinaraziko zaie pertsona edo entitate eskatzaileei.

Ebazpenak jakinaraziko dira eskatzaileek eskabidean horretarako adierazitako lekuan. Oinarri zehatzek xedatu ahal dute jakinarazpenak soilik bide elektronikoz egingo direla.

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpen zehatza jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo entitate eskatzaileek ezetsitzat jo ahal izango dituzte bere diru-laguntza eskaerak.

Organo eskudunak:

Instrukzioa eta proposamena: Azkoitia Lantzen S.A.

Ebazpena: Alkatetza.

Gainerakoan, diru-laguntza orokorren eta espezifikoen oinarrietan xedatutakoa beteko da. Oinarri horiek, hurrenez hurren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2020ko irailaren 8an eta 2021eko irailaren 10(e)(a)n.

Azkoitia, 2021eko irailaren 13a.—Javier Zubizarreta Zubizarreta, alkatea. (6060)

En todo caso, el plazo de presentación de las solicitudes finalizará el 29 de octubre de 2021.

A los efectos del cómputo de los ingresos se tendrá en cuenta el periodo impositivo que, vencido el plazo de la presentación de la declaración del impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, sea inmediatamente anterior a la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Artículo 6. Documentación justificativa y plazo para su presentación.*

El primer pago se realizará tras la resolución de la convocatoria. La resolución de concesión de las subvenciones se acordará en un máximo de 2 meses tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, y en el mismo se ordenara un primer pago de la ayuda.

En relación con los pagos siguientes, aquéllos se realizarán de manera fraccionada, por trimestres vencidos, debiendo justificarse los pagos de las mensualidades correspondientes. La entrega de los justificantes de abono se realizará en las oficinas del Ayuntamiento de Azkoitia, en los 15 primeros días posteriores a cada trimestre natural.

En el caso de arrendamientos compartidos, el cálculo de la ayuda por unidad convivencial, se realizará dividiendo renta mensual total de la vivienda, entre el número total de titulares del contrato. Si la vivienda esta situada dentro del Conjunto Monumental se dividirá igualmente los 50 €.

*Artículo 7. Resolución y notificación.*

La resolución pone fin a la vía administrativa y será notificada individualmente a las personas o entidades solicitantes.

Las resoluciones se notificarán en el lugar que los solicitantes hayan designado a tal efecto en la solicitud.

El plazo máximo para dictar y notificar la resolución definitiva es de seis meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución concreta, las personas o entidades solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención.

Órganos competentes:

Instrucción y propuesta: Azkoitia Lantzen S.A.

Resolución: Alcaldía.

En todo lo demás se estará a lo dispuesto en las Bases de subvenciones Generales y Específicas, publicadas respectivamente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 8 de septiembre de 2020 y el 10 de septiembre de 2021.

Azkoitia, a 13 de septiembre de 2021.—El alcalde, Javier Zubizarreta Zubizarreta. (6060)

EK\CV GAO-I-2021-06060